

Behera egin du gazteen lan-istripuen kopuruak EAEn


2013an, 16 eta 34 urte bitarteko 4 lagun hil ziren Euskadin, lan-istripuetan Apirilaren 28a **Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Munduko Eguna** dela-eta, EAEn bizi diren 16 eta 34 urte bitarteko pertsonen lan-istripuei buruzko datu batzuk eskaintzera dator [Gazteen Euskal Behatokia](#). Datuok [Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundetik](#) aterata daude.

2013an, 27 920 lan-istripu gertatu ziren guztira, EAEn. Horietatik, 7318 16 eta 34 urte bitarteko pertsonen pairatu zituzten (% 26). Proporzio horrek beherakada arina izan du 2012tik hona. Izan ere, gazteek jasandako lan-istripuak 8476 izan ziren 2012an, guztizko kopuruaren % 29.

2013an 16 eta 34 urte bitartekoek sufritutako lan-istripuetatik, 5341 gizonei gertatu zitzaizkien(% 73) eta 1977 emakumei (% 27).


Istripua gertatu zen jarduera-sektoreari erreparatuta, ezbeharren erdiak baino gehiago (% 52) zerbitzuen sektorean jazo ziren; % 36 industrian, % 10 eraikuntzan; eta % 2 lehen sektorean.

2013an, ‰ 33,5koa izan da 16 eta 34 urte bitartekoen lan-istripuen indizea, alegia, bjadun lan-istripu kopurua adin-talde bereko 1000 pertsona okupatuko. Azken urteotan, lan-istripuen indizeak beherakada handia izan du: 2005ean ‰ 72,8koa zen; 2013an, esan bezala, ‰ 33,5koa.



2013an, Euskadin, 33 kasutan, lan-istripuek heriotza izan zuten ondorio. Hildako horietatik, 4 16 eta 34 urte bitartekoak ziren, guztiak gizonezkoak.

16 eta 34 urte bitarteko gazteen lan-istripu hilgarrien kopuruak nabarmen egin du behera: 2003an 39 izan ziren eta 2013an, 4.



Gazteen Euskal Behatokiak ustiari diti [Osalanek, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak](#) eskainitako datu hauek. [Gazteen Euskal Behatokiaren Adierazleen Sistemari](#) daude eskuragarri, "Lana" deritzon ataleko "Lan-istripuak" azpiatalean.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

